

Bilboko Hirigintza Plan Orokorra ezbaian

Ibon Areso

Bilboko Udaleko Hirigintza zinegotzia

«Gordailu Zaharraren balio historikoa erlatiboa da»

Herritarrek eta auzo elkarteek Hirigintza Planari egiten dizkion kritika gehientsuenak ez direla bidezkoak iruditzen zaio Ibon Areso Bilboko Udaleko arlo horretako zinegotziari.

Bilboko Hirigintza Plangintza Orokorra kritikatu izan da plangintzak zenbait plan txikiz osatuta dagoela esanez, plangintza orokorra izan beharrean; hori horrela da?

Ez, hori ez da horrela. Plangintza Orokorra Bilbon erakitzekoa den zorua eta haren erabilera arautzen du. Tartean, Miribilla eta Larreagaburuko meategi zaharreko babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzea aurreikusten du lan bakan moduan, baina egun aurreikusita dauden Amezola, Abandoibarra eta Zorroztarren egingo diren ekintzak plangintza orokorraren arabera egiten ari dira. Beraz, plangintzak Bilboko hiri lurra arautzen du eraikitzeak aukerari dagokionez, jarduera orokor baten alde. Ez dut uste baieztapen hori egia denik.

Uribitarten aurreikusita dagoen egokitzeak auzokideen alde-tik errekurtsio administratiboa ekarri du EAEko Auzitegi Nagusian; zer deritzozu horri?

Errekurrizko eskubidea dute. Hala ere, legearen barruan aldatu da plangintza. Ez dut uste errekurtsioak aurrera egingo duenik; esan bezala, aldaketak legekoak izan dira.

Hala ere, auzo elkarteak dioenez, Udalak ez du behar bezala gordetzen ondasuna, hori baita salaketaren arrazoietakoa bat.

Uribitarteko Gordailu Zaharraren balioa erlatiboa da, ez da monumentu historiko artistikoa, eta bertan aurreikusita dagoen lanak nolabait gordetzen du ondasun hori, eta horri egokiago deritzot, ondasunaren gordetze mimetikoari baino. Bada, aurreko beste kasu batean, Guggenheim museoaren inguruan zegoen lantegia ukiezina zela zioten batzuek. Horrela izan balitz, Guggenheim ez zen eraikiko. Ez nago ados argudio horrekin, eta kasua berdintsua da.

Mugimendu inmobiliario horien ondorioz, Bilboko etxebizitzaren prezioak gora egin du; babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeak lagunduko luke merkatua orekatzen?

Horren inguruan badira aurreikusita zenbait lan; Miribilla eta Olabeagan egingo diren babes ofizialeko etxeak, esaterako. Datuen arabera, erdigunean dauden etxebizi-



tzen prezioak gora egin du; esaten zen metro karratuko milioi bat pezeta ordaintzen ari zela. Hori erdigunean etxebizitzak falta direlako gertatzen da. Aldiz, plangintza orokorrak aurreikusten dituen babes ofizialeko etxebizitzaren prezioa askoz ere egokiagoa da.

inolako eztabaidarik gabe eta horren ondorioz, Kale Nagusia, Abando inguruko ardatza eraldatu egin da, oinezkoentzat eginez, baina eraldaketa hori ez da batere justu edo arrazoitua izan. Udalean ez da demokraziarik antzematen». Jose Allendek beste argudio batzuekin jarraitu du: «Rioko Hitzarmenaren Agenda 21ek ere nabarmen-tzen du atal hori, parte-hartze publiko-

ari dagokiona. Hala ere, batzuek uste dutenaren kontra, prozedura aldaketak ez luke ekarriko ekimen pribatuaren bazterketa». Hala izanik, Bilbao 2000 eta Metropoli 30 erakundearen inguruan ere kritikoa agertzen da Jose Allende: «Ekimen pribatuaren eta babes publikoaren artean murgiltzen diren erakunde horien gainean ez dago kontrolik. Azken finean, interes pribatuak tarteko daudela, zaila da haien kontrola ezartzea. Ekimen pribatuak ez du zergatik txarra izan, betiere kontrol demokratikoa egonik».

Mugimendu urbanistiko horien inguruan zein irizpide erabiltzen diren galdetuta, Iñaki Uriartek zera erantzun digu: «Irudizko Bilbo egiten ari dira, irizpide ekonomikoaren nagusitasunaren alde».

Euskalduna, ohitura berriak eragiten

Ibai bazter horretan egiten ari diren beste jarduerak batzuen inguruan, Euskalduna jauregiaren inguruko lanei buruz hauxe esan digu Iñaki Uriarte arkitektoak: «Sarbidetegi eta zirkulazioari dagokienez, kaosa sortu da inguruan; hori planifikaziorik ezaren ondorioa da. Bestetik, Guggenheim eta Euskalduna jauregiak jende mugimendu handiak ekarri dituzte. Jarrera aldaketak ere bai, kultura kirol bilakateraino, ia beharrezko baita leku horietara joateko tximeleta begizta eta soineko luzea eramatea. Inguruko merkataritzan ere eragina izan du horrek, lokalen prezioak gora egin baitu izugarri, etxe ezagunen frankiziak agertu dira, eta horrek ohitura berriak eragiten ditu inguru honetan».

«Euskalduna jauregiaren eta Guggenheim artean eraiki nahi den

gune komertzialak ere topo egin du Bizkaiko Arkitektoen Elkargoaren kontrako iritziarekin, eztabaida handia sortu du. Argi dago gune komertzial berriak min handia egingo diela inguruko merkatariei», azaldu du Jose Allendek.

Hala ere, Iñaki Uriartek beste bi alderdi aipatu ditu Plan Orokoarrari dagokionez. Alde batetik, San Mames futbol zelaiaren lekualdaketaz mintzatu da: «Hasiera batean, uste zen Abandoibarran kokatuko zela, baina Erakusketa Azokaren lekualdaketaren eraginez-edo kokagune berria hori izango da», dio arkitektoak. «Erakusketa Azoka ere hasiera batean Zorroztarrera eramatea erabaki zena, Euskal Herriko Unibertsitatearekin batera; azkenean, Barakaldoko Ansonen kokatzea erabaki da. Mugimendu hori ez dago erabat arrazoitua; azken finean, bi erakusketa handi baino ez dira aldaketa horren arrazoiak».

Merkatua orekatzeko, etxebizitzak babestua


Bilboko erdigunean gertatzen ari diren mugimendu inmobiliarioen ondorioz, hau da, zoruaren salerosketa dela eta,

Bilboko etxe merkatuak gora egin du azken urteetan. «Ez bakarrik Bilbon: Barakaldon eta beste toki batzuetan berdin gertatzen ari da, etxebizitzaren prezioak gora egin du izugarri. Horri aurre egiteko modu bat babes ofizialeko etxebizitzaren eraikitzea litzateke, merkatua orekatzeko», argudiatu du Iñaki Uriarte arkitektoak. «Aldiz, Isozakiren dorrekin gertatu dena beste gune batzuetan ere gerta daiteke, hau da, edozein zoru baliatzea mugimendu espekulatiboen menpe jokatzeak».

«Plangintza orokorrak alde batera utzi ditu Bilboko auzoak», jarraitu du Jose Allendek. «Bilboko erdigunera mugatu da esku-hartzea, eta bigarren maila batean utzi du periferia. Auzoetako bizi-baldintzen hobetzea, zerbitzuak... Bilbo Zaharraren kasuak agerian uzten du hori; ezin da auzo bateko errealitatea aldatu itxuraldaketa soil batez, gizabidez jokatzea ere beharrezkoa da. Auzoen antzinako izaera ere gorde beharra dago». Miribilla eta Bilbo Zaharrean egin nahi den egokitzearen ondorioz, 300 etxebizitzak bota, eta 3.000 etxe berri eraikiko dira, meategi zaharraren zorua baliatuz. «Bertan hiri berri bat eraiki nahi dute», azaldu du arkitektoak: «Argi dago ekimen publikoak bere gain hartu beharko lukeela etxebizitzaren berrien eraikuntza. Aldiz, haien %40 inguru ekimen pribatukoak izango dira».

«Hiria norentzat?», galdetu du Jose Allendek, Sarrikoko irakasleak. «Eztabaida sortu beharra dago gizartean, eremu enpresarialetan, unibertsitatean, sindikatu eta eragile sozialen artean... Gizarteratu beharra dago gure hirirentzat nahi dugun etorkizunaren inguruko eztabaida. Eta eztabaida horrek positiboa izan behar du».

U nagusiak



IÑAKI URIARTE

«Udala irudizko Bilbo egiten ari da, irizpide ekonomikoaren

nagusitasunaren alde»